




ESTRATEGIA DE
CONVIVENCIA
INTERCULTURAL
DE NAVARRA

NAFARROAKO
KULTUREN ARTEKO
BIZIKIDETZAREN
ESTRATEGIA

Kulturen arteko Bizikidetzarako Nafarroako Estrategia 2021-2026

EGIKARITZE-LABURPENA



Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua





2021-2026 Nafarroako Kultura arteko Bizikidetzarako Estrategiaren Txosten Exekutiboa

Zuzendaritza eta koordinazioa

Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia – Ayllu, Kulturen arteko Bizikidetzeta eta
Arrazakeria eta Xenofobia aurkako borrokarako Zerbitzua

Idazketa eta aholkularitza

Madrilgo Unibertsitate Autonomoa Fundazioa



Edukien aurkibidea

ZERGATIK DA BEHARREZKOA NAFARROAN KULTUREN ARTEKO BIZIKIDETZA ESTRATEGIA BAT?	4
NOLA EGIN DA ETA NORK HARTU DU PARTE 2021-2026 ALDIKO KULTUREN ARTEKO BIZIKIDETZARAKO NAFARROAKO ESTRATEGIAN?	5
ZEIN DA KULTUREN ARTEKO BIZIKIDETZARAKO NAFARROAKO ESTRATEGIAREN EGITURA?	7
ZER DA KULTUREN ARTEKO BIZIKIDETZA?	8
Bizikidetza	8
Kulturartekotasuna	9
Kulturen arteko bizikidetza Nafarroan	9
ZER ESKUMEN, ARAU ETA POLITIKA ESPARRU DU ERREFERENTZIATZAT?	11
ZEIN DIRA BIZIKIDETZARAKO ESTRATEGIAREN PRINTZPIO GIDARIAK?	12
ZER-NOLAKO EKARPENA EGITEN DIO KULTUREN ARTEKO BIZIKIDETZARAKO ESTRATEGIAK 2030 AGENDARI?	13
ZEIN DIRA BEHAR DIREN ALDAKETEN DIMENTSIOAK?	16
ZEIN DIRA HELBURU OROKORRAK?	17
ZER AKTIBO ESTRATEGIKO DITU?	18
LEHENTASUNEZKO ZER ILDO, HELBURU ESPEZIFIKO, NEURRI, PROPOSAMEN ETA ADIERAZLE JASOTZEN DITU ESTRATEGIAK?	21
ZEIN DIRA NEURRIAK, EGUTEGIA ETA AURREKONTU ESLEIPENA?	23
NOLA PLANTEATZEN DA GOBERNANTZAREN GARAPENA?	40
ZER ELEMENTUK AHALBIDETUKO DUTE JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEA?	42



Zergatik da beharrezkoa Nafarroan Kulturen arteko Bizikidetzaren Estrategia bat?

Kulturen arteko Bizikidetzarako Nafarroako Estrategiak (2021-2026) azken hamarkadetan Nafarroako gizarteko eremu instituzional eta sozial desberdinetan egiten ari den ahalegin handiari erantzuten dio, eta helburua da sakontzen eta areagotzen ari den prozesua, alegia, nafar gizartearen dibertsifikazio soziokulturala, modu baketsu, eraginkor eta jasangarrian kudeatzeak dakarren erronkari aurre egitea.

Foru Komunitatearen dibertsitate ekologikoa, geografikoa, soziokulturala eta linguistikoa sakona eta tradizio historiko luzekoa denez, egiazki, azken hamarkadetan eta etorkizunean, bere nortasun batu eta plurala mantendu eta garatu behar du. Martxan dauden aldaketek –demografikoak, migrazio alorrekoak eta sozialak– eta dibertsifikazio biziak eguneroko bizitzan eta politika publikoetan dakartzaten erronkek Kulturen arteko Bizikidetzarako Estrategia hau behar dute.



Nola egin da eta nork hartu du parte 2021-2026 aldiko Kulturen arteko Bizikidetzarako Nafarroako Estrategian?

Plana egitean, ezaugarri nagusia izan da entzute aktiboa eta arretatsua; horrela, espazio birtual eta presentzial ugari ahalbidetu dira, eta haietan herritar antolatua eta banakakoak bildu dira, esparru eta zerbitzu askotako profesionalak (publikoak zein pribatuak) eta ekarpen espezifikoak ere egin ahal izan dira, baliabide dokumentalen, elkarrizketen eta abarren bidez. Horrekin guztiarekin batera, aurreko plan, programa eta estrategiak aztertu dira, eta, hain ekarpen baliotsuekin, Diagnostiko Parte-hartzailea egin da, Nafarroako Kulturen arteko Bizikidetzaren alorreko egoera, erronkak eta aukerak aztertzen dituena.

Prestakuntza prozesua



Iturria: Guk geuk egin





Hautapen prozesuko parte-hartzeak:





Zein da Kulturen arteko Bizikidetzarako Nafarroako Estrategiaren egitura?

Kulturen arteko Bizikidetzarako Estrategia berriaren hasieran esparru kontzeptual eta teoriko bat dago, funtsezko hiru alderdiri buruz: migrazioak, bizikidetzeta eta kulturartekotasuna. Horren bidez, Foru Komunitatean kulturen arteko bizikidetzarako ibilbide berriak oinarritzat dituen elementu zientifikoak mugatu eta sendotu nahi dira.

Jarraian, honako hauek bildu dira: arauzko elementuak, administrazioen eta erakundeen maila ugaritatik (nazioartekoa, Europakoa, Estatukoa eta autonomikoa); Estrategia osoaren printzipio gidariak; eta Estrategia garapen jasangarriko helburuekin lerrokatzea.

Bigarren blokean, prozesua ibilbide gisa marraztuko duten eta kulturen arteko bizikidetzeta hobetzeko beharrezkoak diren aldaketak ahalbidetuko dituzten funtsezko elementuak landu dira, honako hauen bitartez:

- Beharrezko aldaketen 5 dimentsioen deskribapena.
- 2 helburu orokor.
- 6 aktibo estrategikoren definizio.
- 5 lehentasuneko ildo.
- 10 berariazko helburu.
- 34 adierazle.
- 21 esku-hartze neurri.
- 92 proposamen.

Kulturen arteko Bizikidetzarako Nafarroako Estrategia (2021-2026) talde lan baten emaitza da, eta guztion parte-hartzea eta lankidetzeta sustatzeko ibilbide orri bat da. Estrategiak Nafarroako Foru Komunitate osoaren inplikazioa estimulatzeko du, erakundeetatik hasi eta hainbat motatako herritarrenganaino, eta aurrean du planteatutako elementu guztiak malgutasunez egokitzea, bizkor aldatzen den gizarte dinamiko batek planteatzen dituen erronka ugari erantzuteko.





Zer da kulturen arteko bizikidetza?

Estrategia eta ekintza plan honen ondorioetarako, honela ulertzen da **kulturen arteko bizikidetza**: *komunitate anitz jakin batean dagoen soziabilitate egoera, non nagusi diren errespetuzkoak, bestearen errekonozimendukoak, komunikazio eraginkorrekoak eta guztien onerako lankidetzakoak diren pertsonen arteko harremanak eta harreman sozialak, arazo, tentsio eta gatazkak modu baketsuan jorratuz.*

Nozio horren oinarrian bere bi osagaiak integratzea dago; horregatik, jarraian, *bizikidetza* osagaia definitzen da lehendabizi, eta, gero, *kulturartekotasuna*.

Bizikidetza

Estrategia honetan kategoria eta ideal soziopolitiko eta etiko hori modu zorrotz eta operatiboan ulertzen da. Modu zorrotzean, baterako existentzia hutsetik bereizten delako; eta modu operatiboan, alderdi edo dimentsio jakin batzuetan zehazten delako. Azter ditzagun bi puntu hauek.

Epe laburrerako eta ertainerako ekintza plan eta estrategia honetan, bizikidetza soziabilitate modu gisa kontzeptualizatzen da, baterako existentziatik eta etsaitasunetik bereizita. **Bizikidetza**, zentzu zorrotz eta **dinamikoan ulertuta, pertsonen eta taldeen arteko elkarreragina dagoen harremana da, baita errespetu aktibotik abiatutako harremanak izateko eta ulertzeko borondatea dagoena ere**; horretan, sortzen diren tentsioak eta gatazkak mekanismo baketsuen bidez erregulatzen dira.

Baterako existentzia, aldiz, pertsonen arteko harreman nagusiki estatikoa da. Horretan, elkarreragin gutxi dago eta errespetu pasiboa edo minimoa da nagusi, tolerantzia pasibozkoa. Gatazka ezkutuan geratzen da, ez da adierazten eta jorratzen.

Etsaitasunean, etengabe gatazkak, erasoak eta indarkeria (egiturazkoa, sinbolikoa edo zuzena) gertatzen diren egoerak bizitzen dira. Elkarreragina dago, baina fidagaiztasunez, mesfidantzaz, saiheste jokabidez eta gaitzespenez beteta dago.

Ikuspegi etikotik ez ezik, ikuspegi operatibotik ere zorrotza izan den nozio bat behar da. Hiru soziabilitate modu horietan –bizikidetza, baterako existentzia eta etsaitasuna– bederatzi dimentsio bereizten ahal dira: erlazonala, jarrerazkoa, normatiboa, axiologikoa, parte-hartzailea, komunikaziozkoa, gatazkazkoa, identitarioa eta politikoa.



Kulturartekotasuna

Kontzeptu hori honela ulertzen da, bai zentzu faktikoan (edo izatez), bai esanahia normatiboari dagokionez (proposamena edo betebeharra):

1. **Zentzu faktikoan, kulturartekotasuna etniarteko harremanak dira**, hau da, etnia edo kultura desberdineko pertsonen eta kolektiboen arteko harreman pertsonal edo sozialak. Eta, hedaduraz, jatorri, gizarte, arraza, hizkuntza edo erlijio desberdineko pertsonen eta kolektiboen arteko desberdintasunak ere badira. Kultura aniztasuna egitate bat da, baina "kulturartekotasuna" terminoak elkarreragin jakin batzuk egotea azpimarratzen du, elkarreragin horiek positiboak edo negatiboak izan.
2. **Zentzu normatiboa eta etikoa** da Kulturen arteko Bizikidetzarako Nafarroako Estrategia honetan erabat jasotzen dena. Horretan, "**Kulturartekotasuna**" honela ulertzen dugu: **gutziz demokratikoa, zuzenbidezkoa eta baketsua den gizarte batean desiragarria litzatekeen soziabilitate modua**; hau da, desberdinaren diskriminaziorik, bereizketarik eta bazterketarik gabeko harremanak izatea. Edo, modu positiboan adierazita, errespetuan, bestea aintzatestean, komunikazio eraginkorrean eta guztion onerako lankidetzan oinarritutako harremanak izatea, abiapuntuko definizioan jaso dugun bezala.

Bigarren adiera hori **interkulturalismo** gisa ulertuta, **multikulturalismoarekin** bat datorren ikuspegia da eskubide berdintasunaren eta aniztasunaren balorazio positiboaren printzipioetan, baina elkarreragin positiboko espazioak sustatzea eta subjektu indibidualek eta kolektiboek komunean dutena edo partekatzen dutena ere azpimarratzen du. Ildo horretan, kulturartekotasunaren hiru printzipio bereizten dira:

1. Berdintasuna eskubide eta eginbeharretan, tratuan eta aukeretan.
2. Desberdintasunak errespetatzea eta aniztasuna positiboki baloratzea.
3. Elkarreragin positiboa eta partekatzen diren alderdiak azpimarratzea.

Kulturen arteko bizikidetzaren Nafarroan

Nafarroari dagokionez, kultura arteko bizikidetzaren ikuspegia izateko, zerrendatutako plano eta dimentsio horietan guztietan sakondu behar da, betiere ikuspegi osagarri eta bikoitzarekin:





- Komuna eta partekatua dena (giza eskubideak, sistema demokratikoa, foru esparru autonomikoa eta bere politikak; nafar izaera, historia eta identitatea eta abar).
- Berezia eta espezifikoa dena (multzo soziokulturalak eta bizi estiloak, bertakoak eta migratzaileak; landa/hiria desberdintasunak, zenbait eremu eta eskualde, hala nola Mendialdea, Erribera eta Nafarroako Erdialdea; hizkuntza aniztasuna gaztelaniarekin, euskararekin eta beste hizkuntza batzuekin; genero eta adinari loturiko azpikulturak; eta abar).

Azken batean, Nafarroaren batasunean eta aniztasunean (biak ere dinamikoak eta aldakorrak) oinarritutako Kulturen arteko Bizikidetzarako Estrategia. **Horrela ulertuta, bizikidetzak eta kulturartekotasunak alderdi zehatzak identifikatzeko, gaiak aztertzeko eta esparru operatiboak sortzeko aukera ematen dute, baita ekintza instituzionalak, teknikoak eta sozialak ezagutu eta sustatzeko aukera ere, kulturen arteko bizikidetzak nagusitzera bideratuta, hori baita hiri, udalerrri eta tokiko komunitateen Giza Garapen Jasangarria lortzeko modu positibo eta ezinbestekoena.**



Zer eskumen, arau eta politika esparru du erreferentziazat?

Kulturen arteko Bizikidetzarako Nafarroako 2021-2026 Estrategiak migrazio fenomenoaren tokiko eraginarekin lotutako politika publiko ugari ditu abiapuntu. Gainera, esperientzia zabala dago nazioarteko konpromisoak, araudiak, esparru orientagarriak eta askotariko tresnak garatzeari dagokionez; horiek denek munduko herrialde gehienei eragiten dien dibertsifikazio soziokulturalari erantzun nahi diote.

Migrazio fenomenoari loturiko ibilbide historiko batetik, oso aurrerapen esanguratsuak ikusten dira, eta gaur egun tresna ugari daude kultura aniztasunaren, inklusioaren, gizarte kohesioaren edo bizikidetzaren aintzatespen positiboa egiteko. Hori esanda, herrialdeen arabera egoera aldatu egiten da, aurrerapen edo atzerapen handiko une historikoak izan dira, eta oso zaila da horiek baliabideak optimizatu eta aurrerapenak finkatu ahal izateko moduan egituratzea, errealitate konplexu eta dinamiko bati erantzun berriak emateko.

Hori guztia abiapuntutzat hartuta, Kulturen arteko Bizikidetzarako Nafarroako Estrategiak Nafarroako Gobernuaren eskumen esparrua du ardatz, eta arau esparru autonomikoa da erreferentzia nagusia; baina, aldi berean, nazioarteko, Europako, estatuko eta tokiko eskumenak eta jarraibideak jasotzen ditu.



Zein dira Bizikidetzarako Estrategiaren printzipio gidariak?

BERDINTASUNAREN ETA DISKRIMINAZIORIK EZAREN PRINTZIOIA

Hau da, pertsona guztiak giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen titular izatea, arraza, sexu eta erlijio arrazoiengatik bereizketarik egin gabe.

HERRITARTASUNAREN PRINTZIOIA

Hau da, pertsona guztiak izatea eskubidearen titularrak, edozein administrazio egoeratan daudela ere.

INKLUSIOAREN PRINTZIOIA

Hau da, migratzaileek beren eskubide guztiak erabili ahal izatea, baldintza beretan eta diskriminaziorik gabe, gizarteko gainerako kideen aldean.

KULTURARTEKOTASUNAREN PRINTZIOIA

Jatorri eta kultura desberdinetako pertsonen arteko elkarreragin mekanismo gisa ulertuta, kultura aniztasunaren balorazioaren eta errespetuaren barruan.

Genero ikuspegia funtsezko elementutzat hartzen da, eta kontuan hartu behar da ezarritako lau printzipioak garatzean.



Zer-nolako ekarpena egiten dio Kulturen arteko Bizikidetzarako Estrategiak 2030 Agendari?

Kulturen arteko Bizikidetzarako 2021-2026 Estrategiaren erreferentzia esparrua Migrazioari buruzko Eskualde Konferentziak egindako lanak izan dira, 2030 Agendan migrazio gobernantza zeharkako bihurtzeko moduak aztertzen dituztenak, baita Nafarroako Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda ere.



Ildo horretan, eta nazioarteko gomendioei jarraikiz, Kulturen arteko Bizikidetzarako Estrategiaren erreferentzia nagusia 10. GJHa (DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA) da. Zehazki, helburu horren 10.7 xedeak pertsonen migrazio eta mugikortasun ordenatu, seguru, erregular eta arduratsuak izateko Nazio Batuen Batzar Nagusiko kideen konpromisoa adierazten du, besteak beste, planifikatutako eta ongi kudeatutako migrazio politikak aplikatuz.





Kulturen arteko Bizikidetzarako Estrategian planteatutako helburu orokorrak lortzea nabarmen lagungarria izanen da 11. GJHari (HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK) erantzuteko orduan, migratzaileen ezaugarri nagusietako bat hiri inguruneetan finkatzea baita. Helburu horretarako, etxebizitza eskuratzeko aukera bermatu behar da, hiperkontzentrazioko edo ghetto bihurtzeko prozesuak saihestuz.



Bestalde, 3. GJHaren (OSASUNA ETA ONGIZATEA) eta 4. GJHaren (KALITATEZKO HEZKUNTZA) gaineko eragina landu egin behar da; izan ere, eskolaratzeak eta eskola arrakastak harrera onaren eta gizarteratze prozesuaren oinarri izan behar dute, baita lurralde batera iristen diren pertsona guztientzako osasun estaldurak ere.



Migrazio prozesuek ekartzen dituzten ebidentzia positibo ugarien artean, helmuga lurraldeen garapen sozioekonomikoari egiten dioten ekarpena dago, hain zuzen ere, 1. GJHan (POBREZIAREN AMAIERA) eta 8. GJHan (LAN DUINA eta HAZKUNDE EKONOMIKOA) planteatzen

diren elementuak eskaintzen baitituzte. Bestalde, azken helburu horrek migratzaileen lan baldintzak egokiak direla ziurtatzeko lan egitea eskatzen du, prekaritate mota oro saiheste aldera.

Kulturen arteko Bizikidetzarako Estrategia egitea, hasieratik, 16. GJHrako (BAKEA, JUSTIZIA ETA ERAKUNDE SENDOAK) ekarpen kualitatibo baten zati izan da. Parte-hartze prozesu handia izan da, gizarte eragileek eta herritarrek modu zabalean parte hartzeko espazioak sortuz, 16.7 helburuari erantzunez: "premiei erantzuten dieten erabaki inklusibo, parte-hartzaile eta adierazgarriak maila guztietan hartzen direla bermatzea".





Kulturen arteko Bizikidetzarako Estrategiak, era berean, 5. GJH (GENERO BERDINTASUNA) lortzea du helburu; hori neurri batzuetan zehaztuta dago, baina, batez ere, zeharka eta diziiplina artean genero berdintasuna sustatzen lagundu nahi da, bizikidetzan eta kulturartekotasunaren sustapenean aurrera egiteko funtsezko elementua baita.



Kulturarteko gobernantzaren atalak kontzeptualizaziotik, ikuspegitik eta metodologiatik laguntzen du 17. GJH (HELBURUAK LORTZEKO ITUNAK) garatzen. Horretarako, sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzan oinarritutako prozesu bat garatzea proposatzen du, helburu komun bat lortzeko: kulturarteko Nafarroa, autonomia erkidegora aberastasun nabarmena ekarriko duena.





Zein dira behar diren aldaketen dimentsioak?

1. **Osotasuna, eraginkortasuna eta efizientzia**, administrazio publikoen, erakunde eta ekimen pribatuen eta herritarren sare eta ekintzen politika eta jarduketetan.
2. Tokiko komunitateen **antolaketa** eta parte-hartzea **sendotzea**, haien gizarte eta lurralde berezitasunak kontuan hartuta eta aniztasuna elementu positibotzat hartuta.
3. Erakundeak, arauak eta **administrazioa** egungo kultura aniztasunera **egokitzea**.
4. **Gizarte harremanak** maila guztietan **bultzatzea**, interes komuneko elementuak azpimarratuz, partekatutako kidesan sentimendua sendotzeko.
5. Gizarte gatazken **kudeaketa arautua eta positiboa**.

Dimentsio horiek guztiak Genero Ikuspegitik garatuko dira, eta interseksionalitatearen ikuspegitik landuko dira. Aniztasun guztiak hartuko dira kontuan, ez soilik Nafarroako lurraldean eta gizartean dauden etnia, kultura, hizkuntza, erlijio edo jatorri aniztasunak, baizik eta baita dibertsitate funtzionalak eta sexogenerikoak ere.



Zein dira helburu orokorrak?

1. Nafarroan bizi diren pertsona guztien parte-hartzea eta elkarreragina hobetzea ahalbidetuko duten baldintza egokiak sortzea, haien kultura jatorria edozein delarik ere, guztien onerako, kultura aniztasuna ondare soziala, ekonomikoa eta kulturala aberasten duen elementu gisa hartuta; alderdi horiek ezinbestekoak dira Nafarroako Foru Komunitatean oparotasuna eta gizarte kohesioa lortzeko.
2. Bertako biztanleak, etorkinak eta gutxiengo etnikoak guztiz gizarteratzeko prozesuak sustatzea, eskubide, eginbehar eta aukera berdintasuna sortuz, Nafarroan bizi diren biztanleen arteko harremanak eta baterako lana indartuta, haien jatorria eta kultura ondasunak edozein direlarik ere. Hori guztia, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzen duten egoera espezifikoak jorratuz.



Zer aktibo estrategiko ditu?

Honelako **estrategia** bat prestatzea proposatzen da: *a) erabaki, urrats eta jardueren segida bat; b) hobetu nahi den abiapuntuako egoera jakin baten diagnostikotik abiatuta; c) norabide jakin batean eta helburu jakin batekin hartzen direnak.*

Estrategia batek **aktibo estrategiko** batzuk izan behar ditu, eta horietan zehaztu behar da. Horiek ez dira etapa zurrunik, bete ondoren atzean geratzen direnak, hurrengora igaroz; aitzitik, garapen zikliko, dialogiko eta espiral motako uneak dira, lehentasunezko ildo bakoitzari eragiten diotenak.

Aktibo estrategikoak Estrategiaren ardatz diren **elementu zentral eta egituratzaileak** dira, **izaera zabala eta zeharkakoa dute, eta horien gainean zehazten dira lehentasunezko jarduketa ildoak, helburu espezifikoak, neurri zehatzak eta aukera eta proposamenak.** Horren eginkizuna Estrategia osoari antolamendu egitura ematea da, azken helburua (**Nafarroan kulturen arteko bizikidetzaren finkatzea, zabaltzea eta hobetzea**) lortzeko funtsezkotzat jotzen diren elementuetan zuzenean eragin ahal izateko.

Jarraian, **sei aktibo estrategikoak zehazten dira.**

I. AKTIBOA
Komunikazio instituzionala, teknikoa eta soziala
II. AKTIBOA
Aliantza eraginkorrak sendotzea eta antolatzea
III. AKTIBOA
Garapena, zabaltzea eta baliabide berriak
IV. AKTIBOA
Etengabe moldatu eta egokitzea
V. AKTIBOA
Prestakuntza eta gaikuntza
VI. AKTIBOA
Ikerketa, garapena eta berrikuntza



I. AKTIBOA. Komunikazio instituzionala, teknikoa eta soziala

Nafarroako Foru Komunitate osoa Estrategiaren partaide egitea, une oro eta prozesuan zehar, sektore guztiak informatuz, sentsibilizatuz eta lankidetzan aritzera animatuz. Komunikazio hori estrategia ezartzen hasten denetik jarri behar da abian, eta ildo, helburu, neurri, gobernantza eta parte hartzeko modu bakoitzean aplikatu behar da, informazioa eragile guztiei helaraziz, batez ere parte-hartze handiena dutenei. Lan horretan, genero rolei lotuta ez dagoen komunikazio inklusiboa eta berdintasunezkoa garatuko da une oro.

II. AKTIBOA. Aliantza eraginkorrak sendotzea eta antolatzea

Bigarren enfasi gisa, lehendik dagoen eta positiboa den guztia finkatzen edo sendotzen jarraitu behar da, eta horrek esan nahi du baliabideak izan behar direla horiek mantentzeko eta iraunarazteko, baita hobetzeko doikuntzak ahalik eta bizkorren egiteko ere.

Honako hauek dira bigarren aktibo horren alderdi zehatzak: a) lankidetzan dihardutenak aintzatestea; b) baliabide edo gailu bakoitzak estrategiarekin duen lotura eta hari egiten dion ekarpena jendaurrean azaltzea; c) gobernantza berria ezartzea eta zenbait mailatan koordinatzea; eta d) beharrezko baliabideak eta bitartekoak hornitzea.

III. AKTIBOA. Garapena, zabaltzea eta baliabide berriak

Aurrekoa osatzeko, programa, proiektu eta ekimen berriak txertatu behar dira, eta erakunde eta lankidetzak berriak jaso behar dira Estrategian.

Honako hauek dira bigarren aktibo horren eduki zehatzak: a) Estrategiaren diagnostiko eta formulazio prozesuan egindako proposamenak jasotzea; b) hurrengo urteetan Estrategia ezartzean egiten diren proposamen berriak txertatzea; eta c) Estatuko eta nazioarteko deialdiak aurreko guztirako eta beste berrikuntza batzuetarako baliatzea.



IV. AKTIBOA. Etengabe moldatu eta egokitzea

Urtero beharrezko doikuntzak egin behar dira *corpus* horretan (programak, aliantzak, plataformak, eta abar), sortzen diren erronka berrietara eta ingurune aldakorrera egokitzeko, ez bakarrik Nafarroako Foru Komunitatearen kasuan, baita Estatuan eta nazioartean ere.

Honako hauek dira laugarren aktibo horren elementu zehatzak: a) koordinazioan ondoz ondoko hobekuntzak egitea; eta b) jarduteko protokoloak eta prozedurak hobetzea.

V. AKTIBOA. Prestakuntza eta gaikuntza

Estrategia ezartzeko prozesuan zehar, erakundeei eta gizarte eragileei norik bere ekarpena egiteko behar dituen ezagutzak, trebetasunak eta tresnak lankidetzan ikasteko guneak eta bitartekoak eskaini nahi zaizkie.

Aipatutako aktibo, une edo enfasiatarako, gaikuntza eskaini behar da. Ikus ditzagun bi adibide: *aliantza eraginkorrek sendotzeko eta antolatzeko* (II. aktiboa), hasierako prestakuntza ekintzak egin behar dira, eta hori Diagnostiko Parte-hartzailean adierazitako funtsezko alderdia da; era berean, *etengabe egokitu eta moldatzeko* (IV. aktiboa) prestakuntza birziklatu egin behar da.

VI. AKTIBOA. Ikerketa, garapena eta berrikuntza

Beste aktibo estrategiko bat aplikatutako ezagutzari, jarraipen xehatuari eta ebaluazio parte-hartzaileari buruzkoa da.

Horretarako, honako elementu hauek jaso behar dira Estrategian: a) inplikazio handiena duten guneentzako (ekarpenak egiten eta jasotzen dituztenak) ezaguna den ikerketa, ekintza eta partaidetza metodologia (IEP); b) Estrategiaren martxari buruzko informazio, dokumentazio eta itzulketa sistema; eta c) jarraipenerako eta ebaluaziorako protokolo gardena.



Lehentasunezko zer ildo, helburu espezifikoko, neurri, proposamen eta adierazle jasotzen ditu Estrategiak?

Lehentasunezko jarduketa ildoek zenbait bide ezartzen dituzte, abiapuntuko egoera hobetzeko eta nahi diren aldaketak lortzeko landu beharreko funtsezko elementuei lehentasuna emateko balio dutenak. Horietako bakoitzak (bost, guztira) **bi helburu espezifikoko jasotzen ditu, dagozkien emaitza adierazleekin (34); horiei esker, Estrategiaren bilakaera neurtzen ahalko da. Azkenik, helburu bakoitza (10) bizpahiru neurri espezifikotan (21, guztira) eta 92 proposamenetan zehazten da.**

Proposatutako lehentasunezko jarduketa ildoek egin den **Diagnostiko Parte-hartzailea hartzen dute kontuan**, eta, aldi berean, **ikuspegi kontzeptualaren eta kulturen arteko bizikidetzaren dimentsioen arabera formulatzen dira**; horiek luze-zabal garatuta daude, eta emaitza eta inpaktu onen ebidentzia dago horien aplikazioan (aplikazio erlazionala, normatiboa, axiologikoa, parte-hartzailea, komunikaziozkoa, gatazkakoa, jarrerazkoa, identitarioa, politikoa).

LEHENTASUNEZKO JARDUKETA ILDOAK

1
Kulturarteko komunitateak sustatzea, herritar globalak lortzeko
2
Balio partekatuak sustatzen dituen eta komunikazioa errazten duen kultura aniztasunaren ikuspegi eta balorazio positiboa sortzea
3
Gatazken prebentzioa eta erregulazio baketsua garatzea
4
Nafarroako kultura aniztasunaren kudeaketara eta sustapenera egokitzeko administrazioen eta erakundeen konpromisoa sustatzea
5
Kulturen arteko bizikidetzak bultzatzeko gizarte sustapena bultzatzea, gutxiengo etnokulturalen edo askotariko herritarren parte-hartze espezifikoa azpimarratuta

Lehentasunezko jarduketa ildo bakoitza bi helburu orokorrekin erantzuteko diseinatuta dago. Alde batetik, Nafarroan dauden





kultura jatorri desberdinetako pertsona guztien arteko elkarreraginaren garrantzia azpimarratzen du (1. helburua); eta, bestetik, erabateko inklusioaren helburua nabarmentzen du, eskubide, eginbehar eta aukera berdintasunetik abiatuta (2. helburua).

Kulturen arteko Bizikidetzarako Nafarroako Estrategiak ibilbide orri bat eskaini nahi du administrazioen, gizarte eragileen eta, oro har, herritarren parte-hartzea eta inplikazioa sustatzeko, aniztasun soziokulturala lurraldeak aberasten dituen elementu positibo gisa aintzatestearen alde, pertsona guztien arteko harremanak indartuz eta guztien ongia hobetzen duten alderdi, baliabide eta talentu guztiak fokalizatuz. Parte-hartze prozesu horretan, lehenetsuneko ildoek bost bide zehazten dituzte, desberdinak izanagatik ere modu sistemikoan elkarlotzen direnak.

Horiei esker, 2021-2026 aldiaren amaierarako, kulturarteko gizarte baketsu baterantz egindako aurrerapenen emaitzak eta ebidentziak lortu nahi dira, non desberdintasunak eta gatazkak modu baketsuan arautzea errealitatea izanen den, baita Nafarroan dauden kulturen arteko adierazpena eta erlazioa ere.

Ildo horiek zehaztean, diagnostikoa prestatzeko prozesuan parte hartu duten pertsonak egin dituzten, eta horiek garatu diren laborategietan egin diren, proposamen ugari bildu nahi izan dira, Estrategiaren diseinuari berari proposamen espezifikoa egiteko. Horietako bakoitza erabakitazunez eta segurtasunez ezartzea planteatzen bada ere, malgutasunak izan behar du abiapuntu, ezinbesteko premisa gisa, aukera eta proposamen berriak jasotzeko edo jada azaldutako beste batzuk birformulatzeko aukera emanen baitu.



Zein dira neurriak, egutegia eta aurrekontu esleipena?

Hurrengo tauletan, lehentasunezko 5 jarduketa ildoetan jasotako 21 neurri espezifikoaren operatibizazioa laburbiltzen da, eta gauzatze epeari eta aurrekontu esleipenari buruzko informazioa ematen da.

Lehenengo taulan, neurriak jasotzen dira, ildo eta helburu espezifikoaren arabera, eta horien lorpen maila neurtzeko emaitza adierazleak jasotzen dira. Gainera, neurri bakoitzerako, gauzatzeari, egutegiari eta esleitutako aurrekontuari loturiko erakundeak zehazten dira.

Bigarren taulan, lehentasunezko ildo bakoitzari dagozkion neurrien aurrekontu esleipena urteka banakatzen da.

1. laburpen taula. Lehentasunezko jarduketa ildoak, helburu espezifikoak, adierazleak eta neurriak

1. LI Kulturarteko komunitateak sustatzea, herritar globalak lortzeko				
1.1. HE		Adierazleak		
Kulturen arteko bizikidetzaren sustatzeko dirulaguntza deialdietako prozedurak, edukiak eta lankidetzazko kudeaketa indartzea.		<ul style="list-style-type: none"> • Dirulaguntza deialdien kudeaketan egindako aldaketak eta hobekuntzak. • Aurkeztutako proiektuak ezarritako kontzeptu esparrura egokitzeari buruzko azterlan eta txostenak, eta proiektu horiek kulturen arteko bizikidetzan duten inpaktua neurtzea. • Gazteriaren eta familien esparrua berariaz lantzen duten aurkeztutako proiektuen kopurua. • Egindako ekintzetan genero ikuspegia garatzeko aplikatutako neurriak. 		
Neurria		Inplikaturako erakundea(k)	Egutegia	Aurrekontua
1.1.1.	Dirulaguntza deialdia aztertzea eta berrikustea, eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Estrategiak ezarritako ikuspegi kontzeptualera eta lehentasunetara egokitzea, bereziki gazteriaren eta familien eremua sustatuz.	Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (MPJD)	2022-2026	2.210.000 €
1.1.2.	Tresna tekniko eta metodologikoak eskaintzea, ikuspegi kontzeptual beretik eta helburu partekatuekin lankidetzan aritu ahal izateko, aberastasuna, metodologien trukea eta gizarte berrikuntza sustatuz.	Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (MPJD)	2022-2026	Langile baliabide propioak



1. LI Kulturarteko komunitateak sustatzea, herritar globalak lortzeko

1.2. HE	<p>Aniztasunaren kudeaketa positiboa sustatzea herri, auzo, eskola, osasun zentro eta espazio publikoetan, baita Nafarroako herritarren segmentu soziokulturalak erlazionatzen dituzten espazioak sortzea ere (komertzialak, asoziatiboak, ludikoak...), horretan guztian genero ikuspegia barne hartuz (sexuaren arabera bereizitako datuak, analisia, hizkuntza inklusiboa, emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua...).</p>	Adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Kulturen arteko Bizikidetzarako eta Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurkako Borrokarako Teknikarien Sarea bultzatzeko garatutako ekintzak. • Auzokideen arteko harremanak sustatzeko ekintzak garatzen dituzten proiektuak. • Kultura kultura-aniztasuna positiboki baloratzea sustatzeko aukera gisa erabiltzen duten proiektu edo jarduerak. Orotariko kultura jatorria duten herritarren parte-hartzea sustatzeko kirola erabiltzen duten ekimenak. • Egindako ekintzetan genero ikuspegia garatzeko aplikatutako neurriak.
----------------	--	--------------------	--

Neurria		Inplikaturako erakundea(k)	Egutegia	Aurrekontua
1.2.1	Kulturen arteko Bizikidetzarako eta Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurkako Borrokarako teknikariak	Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (MPJD) Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa (NUKF)	2022-2026	1.932.000 €
